

ASTIGARRATIK MANDAZUBIRAKO BARIANTEA

Bariantea Gabonetarako zabalik izango da

Guardia Zibilen lehengo kuartel pare hartan tunela egin behar dute eta horrek luza-tu ditzake lanak.



Bariante berria holaxe ikusten da Santa Barbaratik begiratuta.

Hego sahiesbideko lanak ari dira aurreratzeko. Joan den urteko martxoan onartu zen behinbetiko proiektua eta handik aurrerakoak ziztu bizian egin dute. "Hasten kosta zaie gehiena" esan digu udaletxe-ko iturri batek.

3.000 MILIOIKO AURREKONTUA
Horixe kostako da Zinkoena-ko trafiko astuna arintzea. Berez, proiektua bera 2.500 milioikoa da, baina, egin beharreko espropiazioak eta beste, igo egin da zerbait. Eta gutxi harritu gehiago igotzea.

BI ROTONDA
Bariante berriak Oialumen eta Akarregi eta Zikuñagako muga horretan ere izango ditu sarre-irteerak. Aurrera begira, Mandazubitik Andoainera eramana nahi dute N-Iarekin lotuz, baina, oraindik proiektu zehatzik behintzat, ez dago. □

IÑAKI LEGARRA LANGILEAREN HERIOTZA

20 bat lagunek lan baldintza seguruak eta prebentzioa eskatu zituzten


CC.OO. sindikatuak egin zuen kontzentrazioarako deia, hernaniar batek lan istripuan bizitza galdu izana salatzeke. Kontzentrazioa eguerdiko 12:30etan hasi zen Plaza Berrin, eta 20 lagun inguru bildu zen pankarta baten atzean.

PREBENTZIOA BIDEA
Lan baldintza seguruak exigitu zituzten, eta lan istripu gehiago gerta ez dadin irtenbidea prebentzioa dela aldarrikatu zuten. □



Peña Otaño 'sozidatea' itxi egingo dute hilabeterako

Sukaldea berritzeko obretan hasiko dira. Irailaren 11tik urriaren 13 itxiko da.



Peña Otaño elkarteak holaxe beharko du hilabeteetan.

PEÑA Otaño Larramendi kaltetik Porturako buelta ho-rretan dago, eta 110 bazkide inguruko elkarte da.

SUKALDEA ETA GASA
Direktibak, Joxe Miel Azurmendi buru duela, sukaldea zabaldu eta berritzeko garaia dela pentsatu du: bi fregadera jarri (lehen bakarra zuen) eta ontzi-garbigailua sartu, gasa eta ikatzezko parril bana (lehen ikatzezkoa bakarrik zegoen), sua berria jarri (lehen baino haundiagoa) gasaren instalazioa berritu, ontzi eta botilak uzteko tokia txukundu...

BESTE ELKARTEETARA
Oraindik ezer garbi ez badago ere, Joxe Miel Azurmendi lehendakariak *Kroni-kari* esan dionez Peña Otaño itxita dagoen bitartean bazkideak beste elkarteetara joateko aukera izango dute, hitzarmen bat egin edo egiteko bidean baita.

31EAN BILERA
Kontu hauen denen berri zehatzagoa emateko, abuztuaren azkenean bazkideek bilera izango dute, arratsaldeko zortzietan, Peña Otaño elkarte- an bertan. □

Hernaniko trainerua bihar Erandion

Erandion izango dira bihar hernaniarrak, eta banderarik ekartzen ez badute, lasai: etzi Donostian markak hobetzeko aukera dute eta..

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

zuri esker

AGUSTINATAKO MONJAK

“Egunero zazpi-zortzi bat laguni jaten ematen diogu”

Mari Karmen Agirre superiorak herriak asko lagundu diela aitortu du. Konbentua Juan Martinez de Eroñotzu bertako semeak egina da 1540. urte inguruan.



Agustinatako monja komunitatea. Ezkerretik eskubira, goitik ilaran: Agustina Zinkunegi, Clara Gorostiza, Teresa Vitoria (hernaniarra), Silvina Baleztena, Magdalena Altuna, Juliana Iribar. Erdiko ilaran: Mari Carmen Agirre (superiora), Dolores Gonzalez, Gloria Baltzategi, Trinidad Baltzategi (biak duela urtebete hilak), Concepcion Etxekorena, Concepcion Jauregi. Behean: Resurreccion Murua, Trinidad Larralde eta Nikolasa Alberdi (hernaniarra).

BERTAN egindako pastelak, kafe, kopa eta guzti hartu zuten *Kronika* Agustinatako konbentuan. Hasieratik argitu digute konbentuak hainbeste urtean iraun izanaren sekretua: “hau bertako semeak egina da eta herriak ere asko maite du.” Denera 14 ahizpa daude orain, eta bi bertako alabak dira: Teresa Vitoria eta Nikolasa Alberdi.

BARTZELONAKO ‘PUNKIAK’

Lehen-lehen ere egiten zuten, baina, orain dela 10-12 bat urte

hasi ziren, berriro, behartsuei jaten ematen. “Guk ez diogu inori zein edo zer den galde-tzen. Datorrenari eman eta kitto.” Behin punki koadrila bat etorri zitzairen. Haien itxura ikusi eta ahizpa batek “ui!! baya eskobones que traen!!” harrituta. “Jator-jatorrek zien, eh?!” Mari Carmenek Olabarriko hizkeran. Orduz kanpo etorriagatik tortila patata haundi bat eman omen zieten. Handik puska batera baita berriz etorri ere punkiok: “jatera ez, oraingoan, zuek agurtu eta eskerrak ematera gatoz.”

ELIZA BETE JENDE

Plazako Parrokia berritu zenean Obispaduak Agustinetako elizan ezkontzak ospatzea galarazi egin zuen “Askok sufritu genuen, oso gogorra egin zitzaigun herriko jendea ezetz esan beharra.” Iganderoko mezetan jende asko biltzen da.

SAN AGUSTIN EGUNA

Datorren astelehenean San Agustin eguna ospatzen dela eta asteburu berezia dute larunbatetik hasita. Astelehenean bertan, meza ondoren arrantxua denak elkarrekin. □

C. D. Hernanik emakumezko taldea osatzeko deialdia zabaldu du



Hernaniko nesken taldean aritu izan zirenak.

EMAKUMEZKO futbol taldean sartu nahi duenak oraintxe du aukera: 14 urtetik gorako neskekin taldea osatzen hasiko baitira.

ZUBIPERA DEIA

Deialdia interesa duten emakume guztiei luzatzen zaie, eta partaide izan nahi duenak astelehen honetan (abuztuak 28) Zubipera azaldu beharko du, goizeko 11etan egingo den entrenamentura (entrenamendurako arropa egokia eraman).

HITZ BITAN



Artekariak lanean eta erremontistak geldirik.

✓ PRESOK

Enkartelada plazan. *Senideak* elkarteak hileko azken ostiralean euskal presoen eskubideen aldeko enkartelada egiten du: zigorraren hiru-laurdenak beteta dituztenak eta gainerakoak Euskal Herrira ekartzea eskatuko dute. Zortzietan udaletxeko plazan.

✓ FERIA

Atzietako feria Urbietara pasatzeko asmoa dago. Atzietako bide-berritze lanak egin artean Urbietara pasa dute landare eta hegazti feria. Aurrera begira, bi feriak Urbietan jarri nahi dituzte udaletxeak eta baserritar batzuek, tokia txukunagoa eta traba gutxiagokoa omen delako. Datorren ostegunerako oraindik ez da erabakirik hartu, eta saltzaile denak aldaketarekin ados ez badaude, eztabaidatu egin beharko da ze erabaki hartu.

✓ PELOTA

Erroizeneak igandean jokatu du finala. Antiguoko Torneoaren finala ganean da, eta Erroizenea-Argote bikoteak Mendizabal-Gurrutxagaren aurka jokatu du txapela. Partiduak igande goizeko 10etan hasiko dira, Antiguoko frontoian.

Bingo Londres torneoan, Zeberio II erdifinaletan da.

Atzoko partiduan Eizagirre baldar aritu, eta Zeberio IIak 11 tantuko aldea atera zion (35-24). Erdifinala asteartean jokatu da, arratsaldeko 4retatik aurrera; bertan Lizasok eta Zeberio IIak neurtuko dituzte indarrak. □

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:	943 550093
☎ Udaltzaingoa:	943333288
☎ DYA:	943464622
	943 335533
☎ Anbulatorioa:	943 557750

☒ FARMAZIAK

☎ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582
☎ Gaez: Diaz
ANDOAIN: Nagusia, 19
☎ 943592057

IRAGARKI MERKEAK

☎ Jatetxe batean, garbitasunerako emakume bat behar da. Kotxea beharrezkoa. Tel.: 943 55 64 81.

☎ Neska behar da, etxekolanak egiteko eta bi ume zaintzeko. Tel.: 943 55 08 66 - 606 13 41 09.

Lizeaga taberna

Biktor Hugo 5
Tel 943 333082
HERNANI



ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506